



EBAZPENA

ERREENTERIAKO AUTOESKOLAK

Espedientea: LEA/AVC 217-SAN-2017 zk.

Aurkibidea:

I.- AURREKARIAK.....	2
II.- FROGATUTAKO EGITATEAK.....	6
1. AUTOESKOLAK	6
A. Beraun	6
B. Bidebieta.....	6
C. Lagunak.....	7
D. Oiartzun	7
E. Sarriegi.....	7
2. ERAGINPEKO MERKATUA	8
A. Garrantzizko merkatua.....	8
B. B baimenaren tarifaren osagaiak.	9
C. Tarifak.....	9
III. ZUZENBIDE-OINARRIAK	12
1. Egitateak kalifikatzea	12
2. Debekaturiko jarduketak egin direla ez egiaztatzearen aitortpenaren jatorria	12
IV. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA.....	13

Osoko bilkura:

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea

Rafael Iturriaga Nieva jauna, bokala

Enara Venturini Álvarez andrea, bokala

Lourdes Muñoa Corrales andrea, idazkaria

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2018ko irailaren 25ko bilkuran, adierazitakoek parte hartuta, ondorengo ebazpen hau eman du 217-ZEH-2017, ERREENTERIAKO AUTOESKOLAK espedientean:



I.- AURREKARIAK

1. 2016ko urriaren 4an sartu zen LEA/AVCren Erregistroan J.E.P. jaunak Errenteriako udalerrian egoitza duten lau autoeskolen kontra aurkeztu zuen salaketa; Autoescuela Lagunak, Oiartzun Autoeskola, Autoescuela Sarriegi eta Bidebieta Autoeskola ziren salatuak (1-15 bitarteko folioak).

Salatzaileak adierazten zuen, bere ustez, bazela prezio-itun bat autoeskola horien artean, eta haiek emandako aurrekontuen kopiak zekartzan salaketarekin.

2. Aipatu autoeskolek B mailako gidabaimena lortzeko irakaskuntza-eskoletan eta bestelako izapideetarako zerabiltzaten prezioak berdinak zirela egiaztatu ondoren, 2017ko apirilaren 3an, Ikerketaren Zuzendariak, 15/2007 Legeak, uztailaren 3koak, Lehiaren Defentsakoak (LDL), 49.1 artikuluan xedatzen duenarekin bat, ebatzi zuen zehapen-espeditentea abiaraztea ondorengo autoeskola hauentzat (16-18 bitarteko folioak):

ZURRIOLA AUTOESKOLA SL (aurrerantzean, LAGUNAK)

BIDEBIETA ANAIAK SL (aurrerantzean, BIDEBIETA)

OIARTZUN AUTOESKOLA SL (aurrerantzean, OIARTZUN)

J.S.P., (aurrerantzean SARRIEGI)

Ebazpen hartan aintzatesten zen zehapen-prozeduran interesdunak zirela J.E.P. jauna eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalako Lehia Zuzendaritza.

3. 2017ko apirilaren 10ean igorri zitzaion informazio-eskaerako probidentzia bat Gipuzkoako Trafikoko Zuzendaritza Nagusiari (TZN), honakoa galdeginez: Errenterian egoitza zuten autoeskolak edota haien atalak; Errenteriako autoeskola edo autoeskola-atal bakoitzetik B mailako zirkulazio-proban gai izan direnen kopurua 2013 eta 2017 artean; Errenteriako autoeskolen bidez zirkulazio-proban gai izatea lortu dutenek bizilekua zein udalerritan duten (36. folioa).

Eskaera horri emandako erantzuna 2017ko maiatzaren 8an sartu zen LEA/AVCren erregistroan (40-73 bitarteko folioak).

4. 2017ko maiatzaren 11 eta 18 bitartean jaso ziren LEA/AVCn espedientera sartu ahal izateko eskabideak honako autoeskola hauetatik: OIARTZUN, BIDEBIETA, SARRIEGI y LAGUNAK (75-95 bitarteko folioak). Guztiek izan zuten espedienterako sarbidea 2017ko maiatzaren 19an LEA/AVCren bulegoetan, eta eskatu zituzten folioen kopiak eman zitzaizkien, eta horren guztiaren akta egin zen (96-99 bitarteko folioak).



5. 2017ko uztailaren 6an informazioa eskatzeko probidentzia berri bat igorri zitzaion Gipuzkoako TZNri, honakoa galdeginez: aurreko eskaeran OIARTZUNi buruz bidali gabeko informazioa; Errenteriako autoeskola bakoitzetik edota autoeskola-ataletatik zirkulazio proban gai izan direnen kopurua, baimen motaren (A, B, C, e.a.) eta urtearen (2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017) arabera banakatuta; eta Orereta Autoeskolari dagokionez, bere jardueran jarraitzen ote duen ala utzita dagoen (102-106 bitarteko folioak).

Eskaera horri emandako erantzuna 2017ko abuztuaren 9an sartu zen LEA/AVCren erregistroan (153-166 bitarteko folioak).

6. 2017ko uztailaren 11n informazioa eskatzeko probidentzia igorri zitzaion auzitan ziren autoeskola guztiei (107-111 bitarteko folioak), honakoa galdeginez: sozietate-izena; izen komertziala; titularra; jardueraren hasierako data; atal kopurua eta haien helbideak; titulartasun-aldaketak; zein baimenetarako eskaintzen duen prestakuntza; fakturazioaren guztizko zenbatekoa 2013-2017 aldian; B baimenen fakturazioaren zenbatekoa 2013-2017 aldian; promozioak edo deskontuak 2013-2017 aldian; B mailako baimeneko ikasleen eskola praktikoen batez besteko kopurua; prezioa zenbatesteko erabilitako irizpideak; kostu-egitura; langileen lan-araubidea eta hitzarmena; ikasle kopuruaren bilakaera 2013-2017 aldian; eta 2013-2017 aldian urte bakoitzean bezeroei ematen zitzaizkien aurrekontuen kopia.

2017ko uztailaren 14tik 18ra bitartean jaso zituzten jakinarazpenak autoeskolek (117-119 bitarteko folioak).

Eskaera horri emandako erantzunak LEA/AVCren Erregistroan 2017ko abuztuaren 3tik irailaren 13ra bitartean sartu ziren, (121-152 bitarteko folioak; 176-213 bitarteko folioak; 216-609 bitarteko folioak).

7. 2017ko irailaren 5ean, Eusko Jaurlaritzako Gipuzkoako Trafikoko Lurralde Bulegoak jakinarazi zuen xedatua zuela, Orereta Autoeskolak berak bere borondatez hala eskatuta, haren jarduera eteteko Ebazpena 2016ko ekainaren 6an. Ondoren, 2017ko ekainaren 19an, jarduera uzteko behin betiko Ebazpena xedatu zen, eta bide batez une honetan itxita legoke hura (169. folioa).

8. 2017ko irailaren 5ean informazioa eskatzeko probidentzia bat igorri zitzaion halaber Errenterian egoitza duen AUTOESCUELA BERAUNi (aurrerantzean, BERAUN), honakoa galdeginez: 2016an eta 2017an aplikatu zituen prezioak, kontzeptuka banakatuta (170-173 bitarteko folioak).

Erantzuna 2017ko irailaren 18an sartu zen LEA/AVCren erregistroan.



9. BERAUNek B mailako gidabaimena lortzeko eskolak emateko eta bestelako izapideetarako zerabiltzan prezioak auzitan ziren autoeskolenekin bat zetozela edo oso antzekoak zirela egiaztatu ondoren, 2017ko irailaren 20an Ikerketaren Zuzendariak, Lehiaren Defentsarako 15/2007 Legearen 49.1 artikuluan xedatzen denarekin bat, ebatzi zuen zehapen-espeditzea hedatzea autoeskola horrentzat ere (613-615 bitarteko folioak).

Zehapen-espeditzea hasteko prozedura luzatu zela jakinarazi zitzaion BERAUNi 2017ko irailaren 28an (623-624 bitarteko folioak).

10. 2017ko urriaren 24an informazioa eskatzeko Probidentzia igorri zitzaion BERAUNi (625-629 bitarteko folioak), honakoa galdeginez: sozietate-izena; izen komertziala; titularra; jardueraren hasierako data; atal kopurua eta haien helbideak; titulartasun-aldaketak; zein baimenetarako eskaintzen duen prestakuntza; fakturazioaren guztizko zenbatekoa 2013-2017 aldian; B baimenen fakturazioaren zenbatekoa 2013-2017 aldian; promozioak edo deskontuak 2013-2017 aldian; B mailako baimeneko ikasleen eskola praktikoen batez besteko kopurua; prezioa zenbatesteko erabilitako irizpideak; kostu-egitura; langileen lan-araubidea eta hitzarmena; ikasle kopuruaren bilakaera 2013-2017 aldian; eta 2013-2017 aldian urte bakoitzean bezeroei ematen zitzaizkien aurrekontuen kopia.

Eskaera horri emandako erantzuna 2017ko azaroaren 20an sartu zen LEA/AVCren erregistroan (662-806 bitarteko folioak).

11. 2017ko urriaren 26an informazioa zuzentzeko eskaera-probidentzia igorri zitzaion LAGUNAK, SARRIEGI eta BIDEBIETA autoeskolei (636-637 bitarteko folioak). Eskaera horiei emandako erantzunak 2017ko azaroaren 6an eta 14an sartu ziren LEA/AVCren erregistroan (647-651 eta 660-662 bitarteko folioak).

12. 2017ko azaroaren 9an sartu zen LEA/AVCren erregistroan TZNri eskatutako dokumentazio-zuzenketa (655-659 bitarteko folioak).

13. 2017ko abenduaren 19an igorri zitzaion informazioa eskatzeko Probidentzia BIDEBIETA, OIARTZUN eta SARRIEGI autoeskolei (807-808 bitarteko folioak), honakoa galdeginez: 2013 eta 2017 artean B baimena lortzeko ikasleei egin zitzaizkien faktura guztien kopia.

Informazio-eskaera horri emandako erantzuna 2018ko urtarrilaren 8an eta 15ean sartu zen Erregistroan (822-1839 bitarteko folioak).

14. 2018ko urtarrilaren 17an Eginbidea zertu zen jakinaraziz ezabatu egiten zirela 15/1999 Lege Organikoak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoak, 3.a) artikuluan aintzat hartzen dituen izaera pertsonaleko datuak, autoeskolek jaulkitako



eta espedientera ekarritako fakturen kopietan ageri direnak (izen-deiturak, NAN eta helbidea) (1839. folioa).

15. 2018ko ekainaren 26an, debekaturiko jarduketarik zegoela egiaztatu ez izanaren adierazpen-probidentzia egikaritu zen, LDE-Lehia Defendatzeko Erregelamenduaren 33. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz¹.

Probidentzia hori jakinarazi zitzaien interesdunei 2018ko ekainaren 27an eta 29an eta uztailaren 2an, 9an eta 13an; eta hamabost eguneko epea eman zitzaien alegazioak egiteko edo egokitzen jotzen zituzten frogantzak egitea proposatzeko. Halaber, jakinarazi zitzaien alegazioak jasota eta probak eginda edo, bestela, hamabost eguneko epea igarota instrukzio-fasea itxi egingo zela, ebazpen-proposamena idazteko xedez. Hala ere, aurkeztutako alegazioak edo egindako frogantzak ikusi ondoren arau-hausteak izan daitezkeen egintzak egon daitezkeela usteko balitz, egintzak zehazteko dagokion baldintzen agiria eratuko litzateke.

Interesdunek ez zuten alegaziorik egin eta ez zuten frogantzarik egitea proposatu.

16. 2018ko abuztuaren 7an, instrukzio-fasea ixteko probidentzia eman zen, eta behar bezala jakinarazi zitzaien interesdunei.

17. 2018ko abuztuaren 10ean, Ebazpen-proposamena eman zen; ebazpen horren berri eman zitzaien interesdunei eta 15 egun balioduneko epea eman zitzaien alegazioak egiteko eta froga eta jardun osagarriak proposatzeko LEKean, eta ikustaldia egiteko, halakorik behar izanez gero.

Ebazpen-proposamenean, instrukziogileak hau proposatzen zion LEKari:

Ondoriozta zezala ez zegoela Erretereriako AUTOESCUELA BERAUN, SC; BIDEBIETA ANAIK SL; ZURRIOLA AUTOESKOLA SL; OIARTZUN AUTOESKOLA SL; eta J.S.P., autoeskolek egindako arau-hausterik.

18. Auzi-alderdietako ezeinek ez du egin alegaziorik, ezta probak egiteko proposamenik ere, ez jarduketa osagarriak egiteko eskabiderik, eta ez du eskatu ikustaldia egitea ere.

¹261/2008 Errege Dekretua, otsailaren 22koa, Lehia Defendatzeari buruzko Erregelamendua onartzen duena; BOE, 50 zk, 2008ko otsailaren 27koa.



II.- FROGATUTAKO EGITATEAK

1. AUTOESKOLAK

19. Gidariantzako ikastegi partikularrak, autoeskola deitu ohi direnak, Gidarien Erregelamendu Orokorrean aurreikusten diren gidabaimenen bat lortzeko asmoa duten izangaiek zirkulazioaren segurtasunerako ezagutzak, trebakuntzak, gaikuntzak edo funtsezko portaerak era profesionalean irakasteko gaitutako irakaskuntza-zentroak dira. Ikasleen baimena lortu ondoren, haien izenean, halaber, zuzemenak egin ditzakete erakunde ofizialetan gidatzeko baimenarekin zerikusia duten dokumentuen egikaritzapena zertzeko².

Autoeskola bakoitza, atalduna edo atalgabea izan, unitate bat da. Atala deitzen zaie jatorrizko eskolaren sukurtsal guztiei, titulartasun eta izen berbera dutenean.

A. Beraun

AUTOESCUELA BERAUN SC (IFZ: J20103404); AUTOESCUELA BERAUN izen komertzialarekin, 2000ko abuztuaren 30ean hasi zuen bere jarduera. Galtzaraborda kalea, 53, Erreterian (PK 20100) du bere egoitza. Ez du atalik. TZNk eta autoeskolak berak emanda, espedienteen ageri den informazioaren arabera, BERAUN autoeskolak eskaintzen duen prestakuntza A2 eta B gidatzeko baimenak lortzera bideratzen da (657-659 eta 665-806 bitarteko folioak).

B. Bidebieta

BIDEBIETA ANAIK SL (IFZ: B75108886); AUTOESCUELA BIDEBIETA izen komertzialarekin, 2014ko apirilaren 1ean hasi zuen bere jarduera. Erreterian du egoitza (PK 20100), Biteri kalea, 20; eta badu atal bat Irunen (PK 20301), Hondarribia kalea, z/g-ean egoitza duena. TZNk eta autoeskolak berak emanda, espedienteen ageri den informazioaren arabera, BIDEBIETA autoeskolak Erreteriako bere lokalean eskaintzen duen prestakuntza AM, A1, A2, A eta B gidabaimenak lortzera bideratzen da (201-213 eta 657-659 bitarteko folioak).

Espediente honen xederako BIDEBIETari egozten zaionak, Erreterian dagoen ikastegian emandako irakaspeneekin zerikusia duten jokabideak soilik hartzen ditu aintzat.

² 1295/2003 Errege Dekretua, urriaren 17koa, Gidariantzako Ikastegi Partikularrak arautzen dituen Erregelamendua onesten duena, BOE 258 zk., 2003ko urriaren 28koa. 369/2010 Errege Dekretuak, martxoaren 26koak, BOE-A-2010-5038, eta AGren 2006ko abenduaren 15eko epaiak, BOE-A-2007-2116, aldatua. Akatsen zuzenketa, BOE-A-2003-23188.



C. Lagunak

ZURRIOLA AUTOESKOLA SL (IFZ: B20647889); LAGUNAK AUTOESKOLA izen komertzialarekin, 2014ko urtarrilaren 15ean hasi zuen bere jarduera. Haren egoitza Donostian dago.

Bost atal ditu; haietako hiruk Donostian dute egoitza, Txofre kalea, 1. Gainera, lau atal ditu, bi Donostian, hurrenez hurren, Irun Plaza, 6 eta Andrestegi, 8. Behea; beste bat Hernanin, Karobieta Auzoa, 1; eta azkena Erreterian, Morrongilleta, 14. TZNk eta autoeskolak berak emanda, espedientean ageri den informazioaren arabera, LAGUNAK autoeskolak bere Erreteriako atalean eskaintzen duen prestakuntza AM, A1, A2, A, B, B+E, B96, C1/C, C1/C+E, D1/D eta D1/D+E, B96 gidabaimenak lortzera bideratzen da (216-609 eta 657-659 bitarteko folioak).

Espediente honen xederako LAGUNAKi egozten zaionak, Erreterian dagoen ikastegian emandako irakaspenekin zerikusia duten jokabideak soilik hartzen ditu aintzat.

D. Oiartzun

OIARTZUN AUTOESKOLA SL (IFZ: B20901252); OIARTZUN AUTOESKOLA izen komertzialarekin, 2006ko ekainean hasi zuen bere jarduera. Bere egoitza Erreterian dago (Tulle,1), eta atal bat du Oiartzunen (Landetxe Plaza, 4). TZNk eta autoeskolak berak emanda, espedientean ageri den informazioaren arabera, OIARTZUN autoeskolak Erreteriako bere atalean eskaintzen duen prestakuntza AM, A1, A2, B, B96 eta EB gidabaimenak lortzera bideratzen da (121-152 eta 657-659 bitarteko folioak).

Ikerketa Zuzendaritzari jakinarazten dionez, Erregistroan sarrera-data 2018ko urtarrilaren 8koa duela, 2018an itxi egin behar dute Erreteriako atala (822. folioa).

Espediente honen xederako OIARTZUNi egozten zaionak, Erreterian dagoen ikastegian emandako irakaspenekin zerikusia duten jokabideak soilik hartzen ditu aintzat.

E. Sarriegi

J.S.P. (IFZ: XXXXXXXXX); AUTOESCUELA SARRIEGI izen komertzialarekin, 1997ko azaroaren 11n hasi zuen bere jarduera. Haren egoitza Erreteriako Maria de Lezo kalean, 7. Behean dago (PK 20100). TZNk eta autoeskolak berak emanda, espedientean ageri den informazioaren arabera, SARRIEGI autoeskolak eskaintzen duen prestakuntza B gidabaimenak lortzera bideratzen da (176-199 eta 657-659 bitarteko folioak).



2. ERAGINPEKO MERKATUA

A. Garrantzizko merkatua

20. Aldez aurretik zehaztu behar den produktu-merkatuan eta eremu geografikoan agitzen dira lehiaren arau-hausteak.

21. Espediente honetan, B mailako gidabaimena edo lizentzia lortzeko irakaskuntzan datza **produktu-merkatua**.

Baimen horrek ahalbidetzen du honako ibilgailu hauek gidatzea³:

- Baimendutako gehieneko masa 3.500 kg baino gehiagokoa ez duten ibilgailuak, gidaria eta beste zortzi bidaide edo gutxiago eramateko diseinatuta eta eginda daudenak. Ibilgailu horiek eraman dezakete atoi bat, baimendutako gehieneko masa 750 kg baino gehiagokoa ez dena.
- Akoplatutako ibilgailu multzoak, B mailako baimenak gidatzea ahalbidetzen duen trakzio-ibilgailuaz eta 750 kg-ko masa gaintzen ez duen atoiak osatuak, ibilgailu multzoaren baimendutako gehieneko masa 4.250 kg baino gehiagokoa ez denean, horrelako ibilgailuentzat ereduak onspen-arauek xedatzen dutenari kalterik egin gabe.
- Triziklo eta kuartziklo motordunak. Baimena lortzeko, hemezortzi urte beteta eduki behar dira gutxienez. Hala ere, hogeita bat urte bete arte ez du baimentzen 15 kW baino gehiagoko potentzia duen motorra daramaten trizikloak gidatzea.

Errenteriako autoeskola guztiek eskaintzen duten baimen bakarra da. Eskerik handiena duen baimena da eta produktu berezitua eratzen du, gidabaimenaren beste modalitate batzuekin ordeztu ezinezkoa. Lehiaren defentsako agintaritza desberdinek emandako ebazpen ugari berresten dute produktu-merkatuaren definizio hori⁴.

Merkatu geografikoak barne hartzen du eraginpeko operadoreek diharduten eremua, non lehia-baldintzak aski homogeenak baitira, baina aski desberdinak inguruko aldean. B mailako gidabaimenaren irakaskuntza-merkatuaren muga geografikoak ezartzeko orduan funtsezko faktorea da ikaslearen bizilekuarekiko edo ohiko egoitzarekiko hurbiltasuna, faktore bereizgarria eta kontsumitzaileek asko

³ 818/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Gidarien Araudi Orokorra onartzen duena (BOE, 138 zk., 2009ko ekainaren 8koa).

⁴ Ikus, besteak beste, LDA-Lehiaren Defentsarako Auzitegi desagertuaren ondorengo ebazpenak: 391/96 Autoescuelas Linares; 421/97, Autoescuelas Collado-Villalba; 461/99, Autoescuelas Alcalá; 462/99, Autoescuelas Tenerife; 532/02; Autoescuelas Coslada; 582/2004, Autoescuelas Extremadura. TCDC-Lehiaren Defentsarako Kataluniako Auzitegiarenak: 3/03, Autoescoles de Sabadell; 5/04 Autoescoles de Santa Coloma de Gramenet; 6/04, Autoescoles de Badalona eta 8/04 Autoescoles de l'Hospitalet de Llobregat. TGDC-Lehiaren Defentsarako Galiziako Auzitegiarena: S-1/2007 Autoescuelas de Vigo. TDCA Lehiaren Defentsarako Aragoiko Auzitegiarena: 3/2009, Autoescuelas Zaragoza.

Oraintsuagokoak, MLBN-Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalarena: SAMAD/07/2015 Autoescuelas Alcalá de Henares; LEA berarena, 7/2012, Gasteizko Autoeskolak, 2015eko apirilaren 29an egina.



estimatzen dutena den heinean. Erreneriako udalerrria merkatu aski zabala da B mailako gidabaimena ateratzeko irakaskuntza-zerbitzuen eskaintza askotarikoa eduki ahal izateko, eta, hartara, balizko bezeroek ez dute sustagarririk udalerrri horretaz kanpoko autoeskolen bila joateko. Udalerritik kanpoko autoeskolaren batera joateak arazoak erakarriko lituzke joan-etorrien eta denboraren aldetik⁵.

Beraz, merkatu geografikoa bertakoa dela ebazten da, eta Erreneriako udalerrira mugatzen da.

22. Ondorioz, Errenerian B mailako gidabaimena ateratzeko irakaskuntzarena da garrantzizko merkatua.

B. B baimenaren tarifaren osagaiak.

23. B mailako baimena/lizentzia lortzeko guztizko tarifa honako osagai hauetan banakatzen da:

- **Matrikula eta ikastaro teorikoa:** matrikula eta espedientea izapidetzea, ikastaro teorikoa eta material didaktikoa barnebiltzen ditu.
- **Eskola praktikoak:** ikasleak azterketara baldintza egokienetan joan ahal izateko behar dituen saio praktikoaren arabera da irakaskuntza praktikoaren guztizko prezioa.
- **Azterketa praktikoa:** gehienetan saio praktiko baten prezioaren tarifa izan ohi dute.
- **Probintziako Trafikoko Buruzagitzako Tasak:** zenbateko finkoa izaten dute autoeskola guztientzat urte bakoitzean. Ikasleak dokumentazioa berritu behar izaten badu azterketa-deialdi erabilgarriak agortu dituelako, autoeskolak zenbateko gehigarri bat ezartzen dio tarifari «berrikuntza» kontzeptuagatik, eta trafikoko tasak gehitu beharko litzaizkioke hari.
- **Kudeaketa-gastuak:** autoeskola batzuek kobratzen duten zenbatekoa da, ikasleen baimena lortu ondoren, haien izenean Probintziako Trafikoko Buruzagitzaren aurrean gidatzeko baimena eskuratzeko izapideak egiteagatik.

C. Tarifak

24. Kasu honetan aztertu da noraino Erreneriako autoeskolek prezio bateratua ezarri duten B mailako gidabaimenaren tarifa eratzen duten osagaietan. Hartarako, erreferentziako prezioa definitu da eta harekin alderatu dira autoeskolek 2013-2017 aldian jaulki dituzten fakturretan egiazki aplikatu dituzten zenbatekoak. Horretarako,

⁵ Egiaztatu da, Gipuzkoako Trafikoko Buruzagitzak helarazitako informazioaren arabera, Erreneriako autoeskolen bidez B Baimenerako zirkulazio-gaitasuna lortu duten guztien % 70k Erreneriako udalerrian duela bizilekua.



erreferentziako preziozat hartu da autoeskolek gehienbat aplikatu duten prezioa B baimena eratzen duten osagaietako bakoitzean.

Irizten da tarifak edo prezioak bat datozela gehi-ken % 4ko tartean daudenean erreferentziako zenbatekoarekin, prezioarekiko sentiberatasuna handia denez, zenbateko hori baino gehiagoko aldeek aldaraz dezaketelako kontsumitzaileak egin dezakeen autoeskola-hautaketa⁶. Autoeskolek eskaintzen dituzten zerbitzuen kontsumitzailearen eredu pertsona gaztea da (18 eta 24 urte arteko adina duena), B mailako lizentzia lortzeko hautua egiten duena. Biztanleriaren zati hori osatzen dute gehienbat inolako lan-errentarik ez duten ikasleek eta, bide batez, hein handi batean, gidatzeko baimena beren familia-nukleoaren multzoak emandako diru-laguntzarekin finantzatzen dutenak.

Beraz, autoeskolek beren fakturretan egiazki kobratu duten prezioa aztertu ondoren, ikusi ahal izan da erreferentziako prezioa, edo 2013-2016 aldian gehien aplikatu den prezioa, ondoren zehazten dena izan dela:

ERRETERIAKO AUTOESKOLAK BAT DATORREN PREZIOA (€)				
	MATRIKULA +TEORIKOA	ESKOLA PRAKTIKOA	AZTERKETA PRAKTIKOA	KUDEAKETA GASTUAK
ERREFERENTZIAKO PREZIOA -% 4	360,00	42,72	42,72	62,40
ERREFERENTZIAKO PREZIOA	375,00	44,50	44,50	65,00
ERREFERENTZIAKO PREZIOA +% 4	390,00	46,28	46,28	67,60

25. Hala ere, autoeskola guztiek ez dute prezio hori aplikatu beren faktura guztietan; horregatik, ondorengo taulan azaltzen da Errenteriako autoeskolek fakturen zein ehunekotan aplikatu duten erreferentziako prezioa osagai bakoitzean eta urte bakoitzean (2013, 2014, 2015, 2016 eta 2017).

ERRETERIAKO AUTOESKOLAK ERREFERENTZIAKO TARIFAREN APLIKAZIOAREN EHUNEKOA												
Autoeskola	2013				2014				2015			
	Matr.+Teor.	E.Prak.	A.Prak.	Kud.	Matr.+Teor.	E.Prak.	A.Prak.	Kud.	Matr.+Teor.	E.Prak.	A.Prak.	Kud.
BERAUN	% 100	% 100	% 0	% 0	% 100	% 100	% 0	% 0	% 100	% 100	% 0	% 0
BIDEBIETA	-	-	-	-	% 0	% 100	% 100	% 100	% 0	% 100	% 100	% 72
LAGUNAK	-	-	-	-	% 86	% 98	% 97	% 71	% 69	% 100	% 100	% 75
OIARTZUN	% 98	% 100	% 100	% 100	% 74	% 100	% 100	% 100	% 43	% 100	% 100	% 100
SARRIEGI	% 41	% 66	% 69	% 86	% 51	% 53	% 59	% 87	% 62	% 70	% 81	% 96

Autoeskola	2016				2017			
	Matr.+Teor.	E.Prak.	A.Prak.	Kud.	Matr.+Teor.	E.Prak.	A.Prak.	Kud.
BERAUN	% 100	% 100	% 0	% 0	% 100	% 93	% 0	% 7
BIDEBIETA	% 2	% 100	% 100	% 56	% 17	% 96	% 87	% 31
LAGUNAK	% 95	% 84	% 100	% 89	% 100	% 100	% 100	% 100
OIARTZUN	% 86	% 100	% 100	% 100	% 52	% 84	% 100	% 100
SARRIEGI	% 31	% 58	% 60	% 54	% 28	% 52	% 83	% 61

Taulan ikus daitekeenez, BERAUNek ez du erreferentziako prezioa aplikatu ez azterketa praktikoan, ezta kudeaketa-gastuetan urteetako ezeinetan ere.

⁶ Horri dagokionez, ikus LEA/AVCren 7/2012 Ebazpena, 7/2012 Espedientea, Gasteizko Autoeskolak, 37. puntua, EAEko Auzitegi Nagusiak berretsitakoa.



SARRIEGIk, aldiz, erreferentziako prezioak aplikatu ditu matrikula+teorikorako % 28an 2017an eta kudeaketa-gastuetarako % 96an 2015ean; eta BIDEBIETAK ia ez du aplikatu erreferentziako prezioa matrikula+teorikoan aztergai dugun aldiko urteetako ezeinetan.

Erreferentziako tarifa gehienetan aplikatu duten autoeskolak izan dira LAGUNAK, % 69 eta % 100 artean, osagaiaren eta urtearen arabera; eta OIARTZUN, % 43 eta % 100 artean, osagaiaren eta urtearen arabera.

26. Autoeskolek erreferentziako prezioa beti aplikatu ez dutenez, haietako bakoitzak aurkeztu dituen fakturretatik abiatuz, kalkulatu da 20 eskola praktikoko kontratatzen dituen eta lehendabizikoan baimena lortzen duen ikasle bati B mailako gidabaimena ateratzea kostatzen zaion egiazko batez besteko prezioa. Emaitzak, BIDEBIDETAK 2015ean batez beste kobratu zituen 1.260,71 € eta LAGUNAKek 2016an kobratu zituen 1.619,48 € arteko batez besteko prezioak barnebiltzen ditu, ondorengo taulan ikus daitekeenez:

B BAIMENAREN BATEZ BESTEKO PREZIOA AUTOESKOLA ETA URTE BAKOITZEAN					
AUTOESKOLA	2013	2014	2015	2016	2017
BERAUN	1.375,07	1.407,66	1.413,30	1.413,30	1.409,73
BIDEBIETA		1.307,65	1.260,71	1.293,76	1.268,65
LAGUNAK		1.407,11	1.348,84	1.619,48	1.406,18
OIARTZUN	1.460,12	1.457,73	1.444,80	1.452,59	1.389,61
SARRIEGI	1.345,78	1.370,61	1.423,67	1.301,04	1.296,62
ERREFERENTZIAKO PREZIOA	1.463,00	1.463,90	1.464,80	1.464,80	1.465,70

Jarraian, kalkulatu da autoeskoletako bakoitzaren batez besteko prezioak erreferentziako prezioarekin duen aldea. Emaitza ondorengo taulan agertzen da, eta bertan ikusten da autoeskoletako ezein ere ez dabilela aldi osoan erreferentziako prezioarekiko (edo autoeskolek gehien aplikatzen duten prezioarekiko) % 4ko desbideratze onargarriaren barruan. BERAUN tarte horren barruan mantentzen da 2014-2017 aldian; LAGUNAK, 2014an; OIARTZUN, 2013-2016 aldian; eta SARRIEGI, 2015ean.

AUTOESKOLA BAKOITZAREN BATEZ BESTEKO PREZIOAK ERREFERENTZIAKO PREZIOAREKIN DUEN ALDEA					
AUTOESKOLA	2013	2014	2015	2016	2017
BERAUN	-% 6,0	-% 3,8	-% 3,5	-% 3,5	-% 3,8
BIDEBIETA		-% 10,7	-% 13,9	-% 11,7	-% 13,4
LAGUNAK		-% 3,9	-% 7,9	% 10,6	-% 4,1
OIARTZUN	-% 0,2	-% 0,4	-% 1,4	-% 0,8	-% 5,2
SARRIEGI	-% 8,0	-% 6,4	-% 2,8	-% 11,2	-% 11,5

Ezin da ebatzi, beraz, garrantzizko merkatua osatzen duten autoeskolek prezio berbera aldi bereberan eta modu iraunkorrean aplikatu dutela aztergai dugun denboraldian.



III. ZUZENBIDE-OINARRIAK

1. Egitateak kalifikatzea

27. LDLren 1.1 artikulua honako hau xedatzen du:

Debekatuta dago taldeko akordio, erabaki edo gomendio oro, edo hitzartutako praktika edo nahita paraleloa den jarduera oro, horien helburua ondorengo bada edo izan badaiteke: merkatu nazional osoan edo zati batean lehia eragotzi, murriztu edo faltsutzea; bereziki ondorengo akordio edo erabaki motak egongo dira debekatuta:

- a) Salneurriak edo beste merkataritza- edo zerbitzu-baldintza batzuk zuzenean edo zeharka finkatzea.
- b) Produkzioa, banaketa, garapen teknikoa edo inbertsioak mugatu edo kontrolatzea.
- c) Merkatua edo hornigaien iturriak banatzea.
- d) Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.
- e) Kontratuak hitzartu ahal izateko beste prestazio osagarri batzuk eskaintzeko baldintza jartzea, baldin eta prestazio horien ezaugarriengatik edo merkataritzako ohiturengatik hori eskatzeak ez badu zerikusirik kontratuen helburuarekin.

28. Espediente honetan, Errenteriako autoeskolek noraino B mailako gidabaimenaren tarifa eratzen duten osagaietan prezio bateratua aplikatu duten aztertu ondoren, dokumentuz egiaztatuta geratu da haiek ez dutela erreferentziako prezioa aplikatu matrikula+teorikoan, eskola praktikoetan eta kudeaketa-gastuetan aldi berean eta modu jarraituan aztergai dugun aldi horretan.

Bestalde, autoeskoletako bakoitzaren batez besteko prezioak erreferentziako prezioarekin duen aldea kalkulatu da eta ikusi ahal izan da autoeskoletako ezein ez dagoela aldi osoan zehar erreferentziako prezioarekiko (edo autoeskolek gehien aplikatzen duten prezioarekiko) % 4ko desbideratze onargarriaren barruan. BERAUN tarte horren barruan mantentzen da 2014-2017 aldian; LAGUNAK, 2014an; OIARTZUN, 2013-2016 aldian; eta SARRIEGI, 2015ean.

Ondorioz, ez da egiaztatu aipatutako LDLren 1. artikulua hautsi denik.

2. Debekaturiko jarduketak egin direla ez egiaztatzearen aitorpenaren jatorria

29. LDLren 53. artikulua ezartzen duenez, lehiaren arloko zehapen-espedienteen ebazpenek honako hau adierazi ahal izango dute:

- a) Lege honetan edo Europako Erkidegoaren Tratatuaren 81. eta 82. artikuluetan debekatutako jokaerak izan direla.



b) Duten garrantzi txikiagatik, lehiari nabarmen eragiteko gaitasunik ez duten jokaerak izan direla.

c) **Ez dela egiaztatu debekatutako jarduketarik izan denik.**

30. Kasu honetan, debekatutako jarduketarik egin denik egiaztatu ez denez, hori aitortu behar da ebazpenean.

IV. LEHIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN EBAZPENA

31. Aurreko arrazoibideak direla eta, Lehiaren Euskal Kontseiluak ebazten du:

BAKARRA: Zehapen-espeditente honetan ez da egiaztatu Errenteriako udalerrian diharduten AUTOESCUELA BERAUN SC, BIDEBIETA ANAIK SL, ZURRIOLA AUTOESKOLA SL, OIARTZUN AUTOESKOLA SL eta J.S.P. autoeskolek arau-hausterik egin dutenik LDLaren 1.1 artikulua debekatzen dituen jarduketak egiteagatik, elkarrekin hitzartuta B mailako gidabaimena lortzeko irakaskuntzarako tarifa bateratuak.



Jakinaraz bekie ebazpen hau LEA/AVCko Ikerketa Zuzendaritzari, MLBNko Lehiaren Zuzendaritzari eta interesdun guztiei, eta adieraz bekie ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta administrazioarekiko auzi-errekurtoa ipin dezaketela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, jakinarazpena egiten den egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.